

VII. EKITALDIKO ARAUDIA: T3T eta T2T

T3T eta T2T 2021. ARAUDIA

0. Artikulua: ANTOLAKUNTZA:

●Oargi Mendi Elkarateak, G-20162665 kirol erregistroetako zenbakiarekin T3T Maratoia eta T2T lasterketaren antolakuntza hartzen du bere gain.

1. Artikulua: EGUNA ETA LEKUA:

2. TOLOSALDEKO 3 TONTORRAK (T3T) eta T2T mendi lasterketak.

3. 2021eko ekainaren 13an (igandea) ospatuko da, eta 09:00etan emango zaio hasiera. Irteera eta helmuga, Tolosako Triangulo plazan izango da.

4. T2T lasterketaren irteera ordua aldiz, 09:30etan izango da leku berean.

2. Artikulua: IBILBIDEA:

3. T3T lasterketak, TOLOSA – ALKIZA – ANOETA – IRURA – ELDUAIEN-GAZTELU- LEABURU eta IBARRA herriak pasako ditu besteak beste. Ibilbidea, 43'5 kilometroko luzera eta +2800ko desnibel positiboa izango ditu.

4. T2T lasterketak, 24'5 kilometroko luzera eta +1600 metroko desnibel positiboa izango ditu, eta Uzturreko eta Erroizpeko gainak pasako ditu. T3T lasterketako 21. kilometrotik aurrera, eta T2Tko 4,5. kilometrotik aurrera, bi lasterketek ibilbide berdina izango dute. Bi lasterketen neurketak ez daude homologatuta.

5. Antolakuntzak, ordezkoi ibilbidea prestatuta izango du lasterketa eguna baino lehen, ibilbidean edo lasterketaren prestaketan arazoak sortuko balira. Aldaketa hauek, ahalik eta azkarren zabalduko lirateke antolakuntzaren kanal ezberdinetatik. Antolakuntzak, bestalde, ustekabeko arrazoi indartsu batengatik lasterketa bertan behera uzteko ahalmena ere izango du.

3.- Artikulua: PARTE HARTZEA:

● Araudi honek dioena betez gero, T3T lasterketan, 18 urteak beteak dituen kirolari orok parte hartu ahal izango du. Urteak, egunean bertan beteta izan beharko ditu, eta ez urtean zehar. Antolakuntzak, proba aurretik, mediku azterketa bat egitea gomendatzen die parte hartzaile guztiei, eta hauek bere gain hartuko dute proban gerta litekeen edozein arazo.

● T2T lasterketan, 18 urteak beteak dituen kirolari orok parte hartu ahal izango du. Urteak egunean bertan beteta izan beharko ditu, eta ez urtean zehar.

● 3.1. Antolakuntzak edozein lasterkariri, lasterketan parte hartzea ukatzeko eskubidea izango du, euren iritziz parte hartze horrek euren irudiaren aurka egiten duela erabakitzen edo ondorioztatzen badu.

4.- Artikulua: EZINBESTEKO MATERIALA:

● 4.1. Haize-babesgarria.

● 4.2. Eguraldi txarra eginez gero: "txubaskeroa" edo euritakoa. Atal hau antolakuntzak argituko luke dortsala hartzeko unean aurreikuspenen arabera. Honez gain, eguraldiaren iragarpena oso beroa bada, antolakuntzak, edateko likido kopuru jakin batekin ateratzera behartu dezake korrikalaria. Hau ere dortsal banaketan argituko litzateke.

VII. EKITALDIKO ARAUDIA: T3T eta T2T

- 4.3. Derrigorrezkoa izango da ezinbesteko material guztia irteera lekurako atetik sartzerakoan aurkeztea. Atal hau ez betetzeak zuzenean lasterketatik kanporatzea ekarriko du.
- 4.4. Korrikalari guztiek, irteeran aurkeztutako material guztiarekin (bastoiak esaterako) egin beharko du ibilbide osoa. Atal hau ez betetzeak zuzenean lasterketatik kanporatzea ekarriko du.
- 4.5. Musukoa ere derrigorrezkoa izango da uneoro eskatutako lekuan erabiltzea. Atal hau ez betetzeak zuzenean lasterketatik kanporatzea ekarriko du.
- 4.7. Eskumuturreko pertsonal eta transferi ezina eskumuturrean jantzita eramatea derrigorrezkoa izango da momentu oro. Atal hau ez betetzeak zuzenean lasterketatik kanporatzea ekarriko du.
- 4.8 Edalontzia. Anoa postuetan ez da edalontzirik izango, parte hartzaile bakoitzak bere edalontzia eraman beharko du. Atal hau ez betetzeak zuzenean lasterketatik kanporatzea ekarriko du.

5.- Artikulua: ADIN MAILAK:

- Gizonezkoetan eta emakumezkoetan ez da adin mailarik izango.
- Guztiek maila absolutuan hartuko dute parte. Gizonezko eta emakumezko kategorietan, 4. artikuluan aipatu moduan lasterketa egunean 18 urteak beteta izan behar direlarik.
- T3T lasterketan, eskualdeko lehen gizonezkoarentzat eta emakumezkoarentzat sari berezia izango da.

6.- Artikulua: SARIAK:

- T3T lasterketan, maila absolutuan, emakumezkoetan eta gizonezkoetan :
 - 1. Postua (500 euro)
 - 2. Postua (250 euro)
 - 3. Postua (125 euro).
- Eskualdeko lehenengoentzat sariak garaikurrak izango dira. Sariak pilatu egin ahalko dira.
- Ernioko tarteko helmugan denborarik onenak egiten dituzten gizonarentzat eta emakumearentzat saria egongo da (200 euro), eta txiparen alfonbrak adierazitako denborak zehaztuko du berau, eta ez tontorrera iritsitako postuak. Saria jaso ahal izateko, lasterketa amaitzea derrigorrezkoa izango da.
- T2Tko sariak, emakume naiz gizonezkoentzat, 150 eurokoa, 100 eurokoa eta 50 eurokoa izango dira hurrenez hurren lehen 3 sailkatuentzat. Proba honetan, ez da beste saririk izango.
- Sari banaketa, lasterkariak sartu ahala egingo da pilaketak saihesteko.
- Probako irabazleak, txiparen bidez denborarik azkarrena markatzen dutenak izango dira.

7 . Artikulua: IZEN-EMATEA:

- Gehienez, 300 parte hartzaile izango dira, izen emate ordena zorrotz jarraituko delarik internetez. Izen ematea, www.kronoak.com web atariaren bidez egingo da, 2021eko martxoaren 1etik (goizeko 9:00etatik) apirilaren 30era bitarte. Izen ematea 42eurokoa izango da denentzat (berdin federatuentzat eta ez federatuentzat). Maiatzaren 1etik ekainaren 5a bitarte, izen emateek 52 euroko salneurria izango dute hurrenez hurren. Bi lasterketako ordainketek, proban parte hartzeko eskubidea, erantzukizun zibil eta istripu aseguruak edukitzeko eskubidea, korrikalariaren poltsa, eta *finisher* kamiseta edukitzeko eskubidea bermatzen ditu. *Finisher* oparia helmugaratuek soilik lortu ahal izango dute, eta ez da inolaz ere etxera bidaliko. Behin izena emateko kuota ordainduta, proban parte ez hartzea erabakitzen duenari ez zaio dirurik itzuliko, baina titularitate aldaketa onartuko da ekainaren 5a bitarte itxaron zerrendako hurrenkeraren arabera.

VII. EKITALDIKO ARAUDIA: T3T eta T2T

●T2T lasterketaren salneurriak: 300 lasterkariko muga izango du lasterketak. Bai federatuentzat, eta ez federatuentzat ere, 27 euroko salneurria izango du dortsalak apirilaren 30a bitarte. Handik aurrera, maiatzaren 1etik eta ekainaren 5era arte, izen emateen kostua 32 eurokoa izango da hurrenez hurren. Ordainketak, proban parte hartzeko eskubidea eta erantzukizun zibil eta istripu aseguruak edukitzeko eskubidea, korrikalariaren poltsa, eta *finisher* kamiseta edukitzeko eskubidea ematen ditu. *Finisher* oparia helmugaratuek soilik lortu ahal izango dute eta ez da inolaz ere etxera bidaliko. Behin izena emateko kuota ordainduta, proban parte ez hartzea erabakitzen duenari ez zaio dirurik itzuliko, baina titularitate aldaketa onartuko da ekainaren 5a arte, itxaron zerrendako hurrenkeraren arabera.

●Antolakuntzak bere erabilerarako dortsal kopuru bat gordeta izango du lasterketa bakoitzean.

●Behin izena emanda ezingo da lasterketaz aldatu.

●Behin izena emateko kuota ordainduta, proban parte ez hartzea erabakitzen duenari ez zaio dirurik itzuliko, baina titularitate aldaketa onartuko da ekainaren 5a arte itxaron zerrendako hurrenkeraren arabera, ez inolaz ere lagunen artean. Izen emateak pertsonalak dira.

●Lasterketatik kanporatzea, erregistroetatik kentzea eta hurrengo urteetan parte hartzea debekatzea ekarriko dute honako arau hauste larri hauek;

○Izen aldaketa egin gabe beste norbaiten izenean dagoen dortsal batekin parte hartzea. (Biak izango dira kanporatuak, titularra eta araua bete ez duena).

○Beste korrikalari batek erabili dezan, dortsala fotokopiatzeko uztea (kasu honetan ere biak kanporatuko dira, titularra eta araua bete ez duena).

○Korrikalarietako edo antolakuntzaren edozein jarrera itsusiren edo larriren batek.

8.- Artikulua: SEINALEZTAPENA:

●Ibilbidea, probaren karteekin, banderatxo laranjekin eta zinta ezberdinekin behar bezala adierazita eta ikusgai egongo da. Ibilbidea nahita ez jarraitzeak lasterketatik kanporatzea ekarriko dio lasterkariari.

9.- Artikulua: ANOA GUNEAK:

●Helmugakoaz gain, gutxienez 7 anoa gune izango dira ibilbidean zehar. Gune horietan, energetikoak eta hidratatzaileak diren produktuak eskainiko dira.

●Anoa guneetan sartzera, MUSUKOA erabiltzea DERRIGORREZKOA izango da.

●Anoa guneetara sartzera eta haietatik irteterakoan, eskuak gel hidroalkoholikoz garbitu beharko dira horretarako egokitutako postuetan.

●Anoa postuetan dauden arduradunen argibideak betetzea derrigorrezkoa izango da. Arau hau ez betetzeak zuzenean lasterketatik kanporatzea ekarriko du.

●Anoa guneetan musukoa jartzea beharrezkoa izango da. Edateko eta jateko garaian musukoa kendu behar bada, segurtasun distantzia mantendu beharko da.

●Anoa guneetan norbait zuzenean antolakuntzaren botilatik edaten hasiz gero zuzenean lasterketatik kanporatua izango da.

10.- Artikulua: KANPOKO LAGUNTZA:

●Lasterketan zehar, lasterkariei ezin zaie korrika lagundu. Honez gain, anoa oro ematea ere guztiz debekatuta dago. Anoa postuetan ere ezin izango da kanpo laguntzarik jaso. Araua ez betetzeak zuzenean lasterketatik kanporatzea ekarriko du.

VII. EKITALDIKO ARAUDIA: T3T eta T2T

11.- Artikulua: KONTROLA ETA ERRETIRATZEAK:

- Antolakuntzak, hainbat derrigorrezko denbora kontrol ipini ditu ibilbidean zehar, eta haietatik igarotzea ezinbestekoa izango da. Horietan, araututako kontrolak egingo dira. Esaterako, Iruratik 4 orduren azpitik igaro beharko da, Elduaienen 6 ordu eta erdiren azpitik, eta helmugan 9 ordu baino gutxiagoan sartu beharko da. Denbora kontrol guztietatik ez pasatzeak galera izango du .
- Antolakuntzako arduradunek, kanporatze puntuetan aurrez ezarritako denbora aurreikuspenak betetzen ez dituzten korrikalariak, probatik kanpo utziko dituzte eta Tolosara garraiatuko ditu.
- Eguraldi txarragatik edo segurtasun arrazoiengatik, antolakuntzak, proba gelditzeko edo aldatzeko eskubidea izango du.
- Lesio edo istripuren batengatik ez bada, korrikalariak ez luke proba bertan behera utzi behar igarotze kontroletatik kanpo. Igarotze-kontrola baino lehen, proba bertan behera uztea erabaki duenak, proba ixteaz arduratzen direnei edo antolakuntzakoei jakinarazi beharko die, haiek txipa desaktibatu eta Tolosara garraiatzeko.
- Korrikalariak,ezinbestean, dortsala eta pultsera gordeko ditu antolakuntzak eskaintzen dituen zerbitzuak (garraioa, anoa guneak, kontsigna...) erabili nahi baditu.
- Antolakuntzak, edozein korrikalari, aldi baterako gelditzera edo lasterketa bertan behera uztera behar dezake, egoerak, bere osasun fisikoa edo segurtasuna arriskuan jartzen baditu.
- Osasun zerbitzura jotzen duten korrikalariak, haien juzkuen eta balorazioen esku geratzen dira. Ondorioz, haien erabakiak onartu beharko dituzte. Osasun zerbitzuek edozein kasutan erabaki hauek hartu ahal izango dituzte:
- 1.- Lasterketa jarraitzeko gai ez den edozein korrikalari kanporatzea (dortsala desaktibatuz).
- 2.- Arriskuan ikusten duten edozein korrikalari ebakuatzea egokien iruditzen zaien baliabideen bitartez.
- 3.- Edozein korrikalari osasun zentro batera eramatea, haren egoerak egokiena hori dela erakusten badu.

12.- Artikulua: KONTROL BAKOITZEKO DENBORAK:

- Helmugan sartzeko gehieneko denbora 9 ordukoa izango da: Iruran eta Elduaienen denbora mozteak egongo dira. Iruran 4 ordukoa izango da, eta Elduaienen berriz, 6 ordu eta 30 minutukoa. Antolakuntzako arduradunek kontrol guneetan aurrez ezarritako denbora aurreikuspenak betetzen ez dituzten korrikalariak, probatik kanpo utziko dituzte, eta helmugara garraiatuak izango dira. Halaber, araudia betetzen ez duena, markatutako ibilbide osoa osatzen ez duena, dortsala ikusgai ez daramana, antolatzaileen aholkuei kasurik egiten ez diena edo beste kirolariekiko errespetu falta erakusten duen korrikalaria ere probatik kanpo utz dezake antolakuntzak.

13.- Artikulua: KRONOMETRATZEA:

- Lasterketaren kronometratzea dortsal txiparen bidez egingo da. Behin sailkapena jarri ondoren, parte hartzaileek, 30 minutu izango dituzte erreklamazioak egiteko. Denbora hori igaro ondoren, erreklamaziorik ez balego, sailkapenak behin betikoak izango dira. Txipa dortsala, bular aldean eramatea derrigorrezkoa izango da.

14.- Artikulua: DORTSALEN BANAKETA:

- Dortsalen banaketa Tolosan egingo da, Triangulo plazaren alboan dagoen Zerkausian. Ordutegia hurrengo hau izango da;

VII. EKITALDIKO ARAUDIA: T3T eta T2T

-Ekainaren 12an, larunbata, 17:00etatik 20:00etara, eta probaren egunean, 07:00etatik 08:30etara leku berean.

●Dorsalak jasotzera, norbanakoa agertu beharko da identifikazio ofizialeko ziurtagiriren batekin. Ezingo da beste baten izenean dorsalik hartu. Dorsalak hartzerakoan antolakuntzak norberari identifikaziorako pultsera jarriko dio, eta lasterketa amaitu bitartean ezin izango du kendu.

15.- Artikulua: KONTSIGNA ZERBITZUA:

●Antolakuntzak kontsigna zerbitzua eskainiko die parte hartzaile guztiei irteera/helmugan puntuan. Pultsera eta dorsala ezinbestekoak izango dira .

16.- Artikulua: INGURUGIROA:

●Lasterketa, ia bere osotasunean, natur guneetatik zehar igaroko da. Hori dela eta, ingurua babestea derrigorrezkoa izango da, eta ondorioz, debekatuta egongo da edozer gauza lurrera botatzea.

●16.1. – Horretarako zaborra biltzeko tresnak jarriko dira anoa gunera guztietan.

●16.2. – Arau hau hausten duena kanporatua izango da.

17.- Artikulua: OSASUN ZERBITZUA:

●Antolakuntzak, larrialdietarako osasun zerbitzua jarriko du ibilbideko lekuri estrategikoenetan. Halaber, helmugan, dutxa, garbiketa eta lehen mailako zerbitzu medikua eskainiko ditu horren beharrean aurkitzen diren kirolarientzat. Euren esana betetzea derrigorrezkoa izango da.

18.- Artikulua: SEGURTASUNA:

●Antolakuntzak, egoerak hala eskatuta, lasterketaren ibilbidea aldatzeko eta dagozkion gainerako aldaketak egiteko eskubidea izango du, eta baita bertan behera uztekoa ere, eguraldiaren baldintzek hala eskatzen badute, edo bestelako arrazoi nagusi batengatik, lasterketa batzordearen adostasunarekin.

19.- Artikulua: LAGUNTZA EZBEHARRETAN:

●Parte hartzaileak, laguntza beharrean aurkitzen diren parte hartzaileei laguntzera behartuta daude, eta baita kontroletan haien gorabeheren berri ematera ere. Puntu hau ez betetzeak lasterketatik kanporatzea ekarriko du.

20.- Artikulua: ERANTZUKIZUNA:

●Antolakuntzak bere gain hartuko ditu, kontratatutako seguruaren estaldurapean baldin badaude, ibilbidean zehar gertatzen diren istripu guztiak. Aldiz, korrikalariaren erruagatik edo utzikeriagatik gertatu bada istripua, antolakuntzak ez du bere gain hartuko erantzukizunik. Parte hartzaileak, euren buruari edo besteei egindako kalte guztien erantzule izango dira.

●Bestalde, antolakuntzak ez du bere gain hartuko, haiek kontratatutako aseguruaren estalduraz gaindiko, partaide, laguntzaile edo ikusleei gerta dakizkiekeen kalteen (galdu, lapurtu, puskatu ...) ondorioz egindako erreklamazioen erantzukizunik.

●Proban izena eman duten guztiek, izena euren borondatez eman dutela ulertzen da. Hori dela eta, partaide eta oinordekoek, erantzukizun zibilar dagokionez, antolaketaz arduratzen diren erakundeak, laguntzaileak, babesleak zein beste partaideak ez salatzea eta kargu horietatik guztietatik libre uztea onartzen dute.

21.- Artikulua: IRUDI ESKUBIDEAK:

●Parte hartzaile bakoitzak ontzat ematen du antolatzaileek ateratako argazki edo bideoetan euren irudia libreki erabiltzeko eskubidea, baita prentsara bidaltzeko ere. Horren eskubidea bermatzeko, ez da inongo inprimakirik bete beharko. Ezezkoaren kasuan ezin izango da proban parte hartu.

VII. EKITALDIKO ARAUDIA: T3T eta T2T

22. Artikulua: COVID 19 TESTUINGURUA

- Araudian aparteko atala du COVID-19 testuinguruak.
- Atal honetako argibideak betetzea derrigorrezkoa izango da.
- Atal hau ez betetzeak zuzenean lasterketatik kanporatzea ekarriko du.
- Irteerak: 50 korrikalariz osatutako taldeetan izango dira, dortsal hurrenkeraren arabera. Bi minutuko tartea izango da taldetik taldera. Parte hartzaile bakoitzak dagokion pegatinaren gainean egon beharko du. Pultsera, dortsala, musukoa eta derrigorrezko materiala ezinbestekoa izango dira.
- Musukoa jarrita izan beharko da lasterketa aurretik, lasterketa hasieran eta lasterketa amaieran. Soilik musukoa kendu ahalko da lehen mendi xendaren sarreran, eta lasterketaren azken 500 metroak baino lehenago. Bi puntuak seinaleztatuak izango dira, eta musukoa norberak eraman beharko du.
- Musukoaren erabilera derrigorrezkoa izango da anoa guneetan sartzerakoan eta irteterakoan 9. artikuluan zehaztu moduan. Gel hidroalkoholikoa ere derrigorrezkoa izango da anoa postuetako sarreretan eta irteeretan.
- Ez da dutxa zerbitzurik edo mangerarik izango lasterketa amaieran .
- Sari banaketa helmugan izango da lehen sailkatuak iritsi bezain laster.
- Guztion betebeharra izango da arauak zorrotz betetzea pilaketak eta transmisioak saihesteko.

23. Artikulua: ONARTZEA

- Araudi honek aldaketak eta hobekuntzak jasan ditzake antolakuntzak horrela erabakitzen badu.
- Aldaketarik balitz, parte hartzaile guztiei igorriko zaie ohiko kanalen bidez.
- Araudi honetan agertzen ez den punturik bada, EMF-FVMren araudia kontuan izanda ikusiko da.
- Lasterketan parte hartzean, araudia onartzen dela ondorioztatzen da.

T3T-T2T ANTOLAKUNTZA